



# ERLEAK BEHAR OREKA MANTENDU NAHI BADUGU

Erleek duten garrantziaz mintzatu da Julian Urkiola Gipuzkoako Erlezain Elkarteko lehendakaria ▶ 6-7

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



**Igandea**  
**2009-06-14**

VIIURTEA 1.728.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Trianguloko helmugara iritsi ziren lehenengo lau parte-hartzaileak. ESTI EZEIZA



Atzo aurkeztu zuten proba parte-hartzaileak. E. EZEIZA

## Harri Festa antolatu dute lehenengo aldiz datorren larunbaterako

**TOLOSA** Inoiz plazaratu ez den 200 kiloko 'kopa' harria jasotzen saiatuko da Aimar Irigoien; gizon-proba eta harri-zulatzailak ere izango dira 4

## ERNIOKO LASTERKETAN VECERRO ETA AMILIBIA IZAN DIRA AZKARRENAK

**TOLOSA** Aralarko Adiskideek antolatuta, Ernioko laugarren mendi martxa izan zen atzo; 74 korrikalarik hartu zuten parte 5

**Hauteskundeetan jaso duten babesak eskertu die herritarrei ezker abertzaleak 3**

**Kirolari ireki dizkiote ateak Ikaztegieta, hainbat ekitaldirekin 3**

## Sanjoanak, Korputz jaiak eta Gazte Festak giro paregabean ospatu dituzte herritarrek

**TOLOSALDEA** Ekitaldi ugari izan ziren hiru herrietan atzo egun osoan zehar 4-5



3x3 saskibaloitxapelketa izan zen Tolosan, besteak beste. Ibarra, ume jokoak izan zituzten plazan, eta Anoetan, berriz, lasterketa egin zuten. EZEIZA/R.CALVO

## Antipodak



### » Uzturretik

Jokin Barriola

**E**gun hartan, jeiki zenean, betiko errealtatetik at zuen pentsamendua. Kafea bukatu eta kotxez lanera zihoala, halako burutazioekin jeikitzeke ze demontre amestuz ibili ote zen hausnartzeari ekin zion. Betiko kotxe ilarak; hainbeste motorartean bere bizia egunero arriskatzen zuen txirringularia; azken asteetako modura kotxe barruan Vernon jaunaren melodiak; azkenik, beti bezala, lantokia.

Egunerokotasun horretan, ordea, arrotz bezala ikusten zuen bere burua, bat-batean nonbaiteko indar arraroren batek zegoen tokitik bortxaz atera eta toki berrirer bat aurkitzea behartuko balu bezala. Orduarte izandako bizimoduak zentzurik ez zuela ohartaraziko zion uhin ikustezin batekastinduko balu bezala.

Trudiak etortzen zitzaizkion burura etenik gabe. Shimamoto Tokioko kaleetan, jendetzaren artean bere nahigabeak ibilera errenaz paseatuz. Minnesotako oihan bateko etxe galdu hartan koadrudun atorra gorritz jantzitako mutilkotea kanta bakoitzean bihotzaren zati bat utziz. Sarriren aduaneroa buruarekin paretari kolpeka behelainoari muga pasatzen eragozterik ez zuelako. Nerabearoko lagun haren irrifar goxoa. Gregor bere ohean, oskolaren gainean, buelta eman ezinda, bere hankatxoegi begira. Maitasunez betetako Zabalaren butano banatzalea zure dutxako ura berotuko duen gasa garraiatzen, berriro. Altxamenduaren garaian, etxetik urrun, hura maitezuten guztietatik eta hark maitezituen guztietatik urrun, arnases-tuka hil zen gizarajoaren begiek erregistratutako azken irudia.

Euria hasi zuen. Aulkian eserita zegoen, ur zipiritzinegi begira. Tanta haien bizia zein izan ote zen galdetu zion bere itzalari. Tanta haiek zu munduko beste puntan ikutu eta, lu-rundu eta gero, beraganaino bidaia-tu ote zuten galdetu zion bere itzalari. Aterkirik gabe atera zen kanpora, badaezpada.

## Lehen eta orain



## Zubimusu zubiari begirada

**VILLABONA-ZIZURKIL** • Bi herriek bat egiten duten puntua da Zubimusu zubia. Hainbat gertaera daude zubiaren inguruan; esaterako, 36ko Gerran militarrei herrirako sarrera galarazteko abuztuaren 13an zubia bota egin

zuten gorriak. Goiko argazkian 40ko hamarkadan zubiak eta bere inguruak zuten itxura ikus dezakegu, eta behean, berriz, urteen poderioz nola aldatu den konturatu gaitezke. \*AMASA-VILLABONAKO ERRETRATU ZAHARRAK/I.T.

## Gutunak

### Iritsi da Eskola Txikien Eguna!

Iritsi da Gipuzkoako Eskola Txikien Eguna. Berrobin elkartuko gara gaur eskola txikietako ikasle, guraso, irakasle eta bertara hurbildu nahi duten guztiak egun eder bat pasatzeko asmoarekin. Aurtengo edizioa 22.a izango da eta berrobitarroi egokitu zaigu festa hau antolatzea. Ez dugu hutsetik hasi behar izan. Aurretik beste hainbat herrik eta auzok prestatu izan dute festa, eta horrenbestez ibilbide luze honetan ikasitako gutzia baliogarri izan zaio hurrengoari.

Hasieran urrun ikusten genuena gerturatzen ari da eta urduritasuna ilusioarekin nahasten ari da gure bihotzetan.

Ekaina, ikasturte bukaeran, azterketa garaia izan ohi da. Berrobik badu aurtengoan bere *finala*. Txikitatik ikasi dugu etxeko lanak txintxo eginez gero azterketak iristen direnean prest gaudela frogak gainditzeko. Eta guk lasai esan dezakezu lanak gogoz eta ondo burutu ditugula. Ea nota jartzen dutenek, gure herrira etorriko direnek alegia, gaintitu dugula erabakitzen duten.

Aurreratu dezakegu eskolako haurrek joko sorta polita prestatu dutela beren irakasleen laguntzarekin. Eta karaokean parte hartuko dutenek ere asko gozatuko dutelakoan gaude.

Arratsalderako prestatu ditugun ikuskizunak ere zuen gustokoak izatea izugarri gustatuko litzaziguke.

Herrian antolatu ditugun zerbitzuekin eroso ibiliko zaretelakoan gaude.

Bide batez, Berrobi ezagutzen ez duzuenok aukera aparta duzue igandeko festaren aitzakiarekin gerturatzeko.

Gure ametsa? Ilusio handiz prestatu dugun horretaz guztiaz giro onean gozatzea, herri txiki eta auzoetakoak gure txikitasunean indartsu eta haundi sentitzea. Hori denon esku dago. Ea lortzen dugun.

Laister arte.

**Eskola Txikien Festaren Antolaketa** **ra**ko komunikazio taldea eta eskolako irakasleak. Berrobi.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri** eta  
**Gipuzkoako beste 4 Hitzetan**  
**DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

## San Joan jaietako giroa nabaritzen hasi da jada azokan ere

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna jai giroan ospatu zen Tolosan. Sanjoanetako ospakizunak hiriko kaleak alaitzen lagundu zuten, eta postuetara animazio berezia ekarri zuten. Eskaintza ere datorren asteburuko San Joanetako azoka berezia dela eta, asko hobetu zela eskaintza aipatzeko izan zen.

Mahaietan barazki asko izan zen. Joan den astean ikusitako nobedadeak, Ibarroko piparrak, atzo ere izan genituen aukeran, eta hauekin, erremolatxa, borraia, azenario eta porru berriak, baba eta ilarra ugari, patata berria edota zain zuri ugari izan ziren ikusgai.

Perretxiko zerrenda oso zabala izan genuen, eta pixkanaka aldatzen dihoala ere somatu genuen. Zizak gutxitzen hasi dira dagoeneko, eta bere lekua, ziza horiak hartzen ari dira. Atzo 18 euroan saldu ziren eta 100 kilo baino gehiago izan ziren. Hauekin, onddo asko izan genituen ere bai.

### » ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
<b>Landareak</b>		
Alegria	1,20	-
Erromeroa	4,00	6,00
Hortentsia	10,00	-
Xarbota	4,00	6,00
Gerania	2,00	-
Larrosa	10,50	-

### » BERTAKO PRODUKTUAK

<b>Fruta</b>		
Errezil sagarra	0,60	2,00
Intxaurra	2,50	4,00
Urta	2,00	3,00
<b>Perretxikoak</b>		
Ziza horia	18,00	22,00
Onddo	10,00	28,00
Ziza	20,00	40,00

### » Barazkiak (kiloa)

Tolosako babarruna	10,00	12,00
Tomatea	3,00	5,00
Ibarroko piparra	10,00	-
Kalabaza	1,50	3,00
Patata	1,00	1,50

### » Besteak

Ogi biologikoa (500gr)	2,20	-
Arrautzak	2,50	-
Artisau ogia	2,80	3,70
Irasagarra	3,00	6,00

### » Gaztak

Gazta berria	17,00	-
Ardigazta	14,00	24,00

### » PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Intxaurra	4,00	6,00
Tipula sorta	1,75	2,00
Letxua	1,00	-



## Hilabete zehar ikasitakoa praktikatuz

**IKAZTEGIETA** • Kirolari ateak zabalik eguna da gaurkoa, baina Ikaztegieta egun bat aurreratu dira eta atzo ospatu zuten beren Kirol Eguna. Goizean eta arratsaldean zehar ekitaldi ugari izan zituzten herrian eta lehena gupil gainean izan zen, gainera. Azken hilabetean patinaia ikastaroa izan

dute herrian eta atzo goizean ikasitakoa erakusteko aukera izan zuten bigorrian zehar eginiko ibilaldian. Hori bukatuta pilota partidak izan ziren frontoian eta bertako parke-zelaiari bazkaldu egin zuten gero. Kirolari eskaintako eguna bukatzeko futbol ligaxka egin zuten. R. CALVO

## «5.169 arrazoi baino gehiago daude aldaketa politiko eta sozialaren alde»

**Tolosa** » Eskualdeko ezker abertzaleak europar Legebiltzarrerako Hauteskundeetan jasotako babes eskertu du.

### » ERREDAKZIOA

Europako Legebiltzarrerako Hauteskundeetatik aste bete pasa denean eskualdeko ezker abertzaleak jasotako babes eskertu nahi izan du, izan ere bost mila bozketik gora jaso zituen pasa den igandean. «Ezker abertzalekoak, lehenik eta behin, milaka eta milaka esker on banatu nahi ditugu, 5.169 lagun baititugu eskertu beharrekoak», esan zuten zentzu honetan.

### » «Aldaketa politiko eta soziala berretsiz eta berrindartuz»

«Zueklortu duzue Euskal Herrian dagoen aldatiba ezkeriar eta abertzale bakarri gehiengo zuzenarekin. Zuek, bozkatzaileok, izan zarete, bitarteko guztiak tarteko, desagerrarazi nahi duten aldaketa politikoa eta soziala berretsiz eta berrindartu duzuenak», esan zuten.

Ezker abertzaleak baldintza okerrean ere «indarra etagaitasuna duela» erakutsi du euren hitzetan eta hori baliatuz «indarra erakustaldi soiletatik harantzago herri harreria eraiki behar dugu, herri honek prozesu demokratikoa muturreraino eramateko eta, aldi berean, abstenitu direnak, %60 baino gehiago, ilusionatze-ko», esan zuten.



Azken hauteskundeetan jasotako babes eskertu du ezker abertzaleak. E. EZBIZA

Ezker abertzaleak, era berean, Iniziatiba Internazionalista «lagunek» emandako aukera «txalogarria» ere eskertu zuten: «Herri honetako makina bat alderdi politikok baino indar gehiagoz salatu baitute Alderdien Legea eta praktikoki erakutsi baititute honen aurkako jarrera. Eredugarria benetan».

Azken egunetan salatu duten «putxerazoa» ere ekarri zuten gogora: «Salagarria da gainontzeko alderdi politikoen isiltasuna eman diren putxerazoen aurrean. Euren isiltasunak berak konplize egiten ditu Estatu Espainolaren iruzur eta gerra zikinetan, hauek asumituz eta onartuz. Gipuzkoan Barne Ministerio espainiarrek 888 bozka desagerrarazi ditu; Irenen 888 bozka. Villabonan Iniziatiba Internazionalisten 78 bozka, Amezketan 113 eta Tolosan 72 ez zenbatu izana ere gogoratu zuten.

## Iragarki laburrak

### » SALGAI

■ **Ezinduentzako garraio baliabideak.** Ezinduentzako scooterra salgai. Urtebeteko garantia. 1.600 euro. Ezinduentzako gurgildun aulki elektrikoa salgai. 20 kilometrotako autonomia. 2.000 euro. Urtebeteko garantia. 6.057 77 16 07

■ **Kotxea.** Citroen Xsara TD. Matrikula SS-BJ. MP3 eta aire egokitu. 3.000 euro. 634 43 40 62.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## Gazteenen jokoak plazan

**IBARRA** ● Giro polita izan zen atzo Ibarren Gazte Festei esker; goizean ume jokoak izan ziren plazan eta arratsaldean eurei zuzendutako ikuskizuna ere izan zen, besteren artean. Gaur bukatuko dituzte jaiak; trikitalari

kalejira izango dute lehenik, gazte bazkaria Xeplan izango da eta 18:00etan Kea emaldia izango da, ondoren Loatzo Musika Eskola ariko da eta 21:00etan Gaztetxean Ze esatekin kontzertua egongo da. **R. CALVO**



## Herri lasterketa jendetsua

**ANOETA** ● Nahiz eta Anoetan egun asko daramatzaten herriko jaiak ospatzen, oraindik ere badute zeregina. Atzo herri lasterketa batekin hasi zuten eguna eta gaur ere izango dira ekitaldiak. 11:00etan plazan zezen-

txoak eta poneyak egongo dira, Paleta Txapelketako finalak 11:30ean eta buruhandi eta erraldoien kalejira ere izango da. Elizan Javier Sarasa txistularia omenduko dute eta 18:00etan herri kirolak egongo dira. **R. CALVO**

# Sanjoan jai hauetan estreinakoz Harri Festa izango da zezen-plazan

**Herri kirolak** ● Hilaren 20an, orain arte inoiz plazaratu ez den 200 kiloko 'kopa' jasotzen saiatuko da Irigoien.

### ERREDAKZIOA

San Joan jai hauetan estreinakoz, Harri Festa ospatuko da. Hilaren 20an, 18:00etatik aurrera, harriarekin lotutako hainbat kirol ikuskizun eskainiko dituzte zezen-plazan. Aurtengoa lehendabizikoa izango da, baina aurrera begira, herri kirolekin lotutako ekitaldi gehiago antolatzeko asmoa dute Udalekoek.

Tolosako festetan horrelako ekitaldi bat antolatzen den lehendabizikoa da. Atzo eman zuten lehen egitasmoaren berri Fronton kafeategian. Bertan izan zen Patxi Mujika, Aimar Irigoien laguntzailea, eta honek adierazi zuenez, duela bi hilabete Udala, beraiekin jarri zen harremanetan, herri kirolekin lotutako jaialdi berezi bat antolatzeko eskatuz. Hauek proposamena onartu eta harria ardatz izango zen ekitaldi bat antolatzea erabaki zuten.

Harri-jasotzaileak, gizon-proba eta harri-zulatzailak ariko dira lehian. Bigarren honetan, hiru tal-



Atzo goizean aurkeztu zuten Harri-jaiak, bertan parte hartuko duten kirolari batzuek. **E. EZBIZA**

deren arteko desafioa jokatu da. Alde batetik, Zumarragoako egongo dira, bestetik, Orío-Usturbi-goak, eta azkenik, eskualdea ordezkatuz, Tolosaldekoak izango dira. Hauek denak, San Joan saria irabazten saiatuko dira. Denbora gutxienean egiten duen taldeak 2.400 euro poltsikoratuko ditu. Bigarrenak, 200 euro gutxiago, eta hirugarren geratzen denak berriaz, 2.000 euro.

Harri-zulatzailerei dagokienez, bi talderen arteko norgehiagokara ikusi ahal izango da. Joan den urtean sortuz den Altzoko taldea urte as-

ortoko eskarmentua duen Jaizubiakoaren aurka ariko da. Biek ere 20 minutuko lana egin beharko dute, eta tarte horretan ahalik eta zulo gehien egiten ahaleginduko dira.

Ekitaldian parte hartuko duen neska bakarra Miren Urkiola harri-jasotzaile bizkaitarra izango da. Honek, zenbait erakustaldi emango ditu beste frogekin tartekatuz. Hasiera batean, Idoia Etxeberria harri-jasotzaileak etorri behar zuen, baina ebakuntza bat egin diote eta bere ordez Urkiola ariko da.

### Inoiz plazaratu gabeko harria

Jaialdi honetatik ikusmin handien sortuko duen froga, Aimar Irigoienena izango da. Errezildarrak, 200 kilo pisatzen dituen kopa jasoko du. Hiru minutuko bi txanda egingo ditu, eta bakoitzean harria ahalik eta gehienetan jasotzen saiatuko da. Orain arte inork ez du pisu honetako kopa-rik jaso, gehienez, 175koa atera baita plazara. Beraz, altxaldi bakarra eginda ere, marka berri bat suposatuko luke Irigoienak. Harriaren forma berezia dela eta, gerrietan eta hanketan indar handia eskatzen du honek.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidagoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdi:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

# Vecerro eta Amilibia izan dira garaile Ernioko lasterketan

**Kirolak** » 74 lasterkarik hartu zuten parte frogan, Triangulora iritsi zen lehen tolosarra Jose Manuel Villegas izan zen.


## ERREDAKZIOA

Aralarko Adiskideek antolatuta, Ernioko laugarren mendi lasterketa izan zen atzo goizean. Azken honetan, Walter Vecerro izan da garaile. Honek ordu bat, 27 minutu eta 58 segundo behar izan zituen Triangulo plazatik abiatu eta itzulia egiteko. Honenbestez, ez zuen lortu duela bi urte Fernando Etxegarai jarritako errekorra gainditzea. Izan ere, berarrak, 1:24:44ko denbora egin zuen.

74 korrikalarik hartu zuten parte atzoko lasterketan, horietatik bi bakarrik ziren emakumezkoak, eta 13, tolosarrak. Hauetan, lehendabizikoa helmugara iristen, Ne-

rea Amilibia izan zen eta bigarre-na, Ainhoa Jauregi. Zizurkildar-rak ordu bat, 57 minutu eta 14 segundoko denbora egin zuen. Azken honekin, bere hirugarren garaipena erdietsi zuen. Dena den, ez zuen lortu duela bi urte berak jarritako marka gainditzea. Orduan, 9 minutu gutxiago behar izan zituen ibilbidea osatzeko.

Mutiletan bigarre-na helmugara iristen, Zuhaitz Ezpeleta arrasatearra izan zen, eta hirugarrena, Juan Mari Garin. Azken hau izan zen eskualdeko lehenena. Goranzko bide guztian Garin Ezpeletaren aurretik joan zen, baina beheranzkoan, arrasatearrak aurre hartu zion zizurkildarrari, eta bera izan zen Triangulora iristen lehena, 33 segundoko aldearekin. Azkenik, sailkapeneko laugarren postua, eta aldi berean, lehen tolosarrarena, Jose Manuel Villegasentzat izan zen. Honek ordu bat 36 minutu eta 53 segundoko denbora egin zuen.



Goian, Walter Vecerro helmugara iristen eta behean, Nerea Amilibia. E. EZBIZA

## » SAILKAPENA

### Mutilak

- Walter Vecerro. 1:27:58.
- Zuhaitz Ezpeleta. 1:30:49.
- Juan Mari Garin. 1:31:21.
- Jose Manuel Villegas. 1:36:53.

### Neskak


- Nerea Amilibia. 1:57:14.
- Ainhoa Jauregi.

### Lehendabiziko tolosarra

- Jose Manuel Villegas.

Walter Vecerro gustura agertu zen egindako lanarekin, bere esanetan, irabaztera atera zen, eta ahal zuen guztia eman zuen. Vecerro, izatez venezuellarra da, baina zenbait urte daramatza Euskal Herrian bizitzen eta Euskal Federazioarekin ari da lehian. Atzo lehendabiziko aldiz korritu zuen Ernioko lasterketa. Berez, Valentzian jokatzeko frogan batean hartu beha zuen parte atzo, baina duela aste gutxi izan zuen lesio baten ondorioz, ez parte hartzea erabaki zuen. Atzoko lasterketa, «frogatza» egin zuela azaldu zuen, hau da, berriro sasoiaren zegoen edo ez ikusteko.

Atzo goizeko lasterketari dagokionez, ibilbidea asko gustatu zitzaioela esan zuen, eta zailtasun handiena beroari aurre egitea izan zela.



# Sanjoanetarako gogoa pizteko, ekitaldi ugari

**TOLOSA** » Sanjoan jaiak hilaren 20an hasten badira ere, jai giroa atzo hasi zen zabalzen Tolosako kaleetan. Kirola, dantza eta artea izan ziren protagonista. Goizez nahiz arratsaldez, Gernikako Arbola-ren ondoan, TAKEk antolatuta, 3x3

saskibalo txapelketa jokatu zen. Goizean alebin eta infantil mailako 120 gaztetxo aritu ziren lehian, eta arratsaldean beste horrenbeste. Baina orduan, helduagoak. Koadrila ezberdinetako kideak aritu baitziren jolasean. Trianguluan,

GKo galeriakoez graffitiak nola egiten diren erakutsi zuten berriz, eta Lopez Mendizabal plazan skate txapelketa jokatu zen. Azkenik, Udaberri dantza taldeak antolatuta, dantzari txikiak kalez kale ibili ziren Alde Zaharrean zehar. E.E./R.C./M.S.S.



Zegaman ospatu zen XI. Ezti Txapelketako sariak banatu osteko une bat eta haurrak kutxan dauden erleei begira. UXOIA BARANDIARAN

# ERLEEN GARRANTZIAZ

**Erlezaintza** » Julian Urkiola Gipuzkoako Erlezain Elkarteako lehendakaria da eta egiten duten lanaz eta erleek duten garrantziaz hitz egin du.

## ENERITZ MAIZ

Gipuzkoako Erlezain Elkarteak duela 23 urte sortu zen gutxi gorabehera. Hasiera batean, Zizurkilgo Fraisoron izan zuten egoitza eta gaur egun Itsasondon ere badute, laster Zaldibira aldatuko direlarik. Orain, lehendakari lanetan Julian Urkiola usurbildarra ari da.

Elkarteak sortzearen arrazoi nagusienetako bat, erlezain guztiak bateratzearena izan zen eta jada 532 bazkide ditu Gipuzkoako Erlezain Elkarteak.

## Elkartearen betebeharrak

Lehendakaria den Julian Urkiolak azaldu du zein diren elkarteak dituen betebeharrak edo helburu nagusiak: «Lehenik eta behin erlezain mundurako behar den material zerbitzua ematen dugu, hau da, erlezainak behar duen materiala elkartearen izaten dugu eta ez badago eskatu egiten da. Material hori ahalik eta merkeen ekartzen saiatzen gara. Gainera, aholkuak ematen dizkiegu erlezainei eta hobetzen jarraitu dezaten ikastaroak antolatzen ditugu. Bestalde, nola ez, diru iturriak lortzen saiatzen gara eta osasungintza aldetik ere, Foru Aldundiarekin harreremant jarri behar izaten dugu sortzen diren gaixotasunak direla eta zer, noiz eta nola erabili behar ditugun

argitzeko». Foru Aldundiarekin urte bakoitzean zein produktu erabiliko dituzten adosten dute eta tratamendua egiteko epeak ere markatzen dituzte. Behin hori jakinda, bazkideen artean banatzen dituzte.

Lehendakariaren gain, beste zortzi lagunek osatzen dute elkartearen junta eta hilean behin elkartzen dira. Bulegoan berriz, bi lagun aritzen dira eta beraiek eramanen dituzte kontu guztiak. Urte guztian ostegunero bulegoan egoten dira baina kanpaina garaian asteartean ere irekita egoten da. Bestetik, erlezaina den albaitea da. Honek, gaixotasunen inguruko aholkuak ematen dizkie, bai bulegora joanda edo telefonoz deituta: «Hau pixka bat gehiago zabaldu nahi dugu eta erlezain bakoitzak ere besteari laguntza edo aholkuak eman diezaiatzio nahi genuke», gehitzen du Urkiolak.

## Hemengo erlea

Hemengo erlea edo erle beltza berreskuratzen ari dira Gipuzkoako Erlezain Elkarteak. «Erle bat kanpotik ekartzen baduzu ez dago honerako egina: hezetasuna, orografia, klima... ezberdinak dira eta ez dago horretara egokitua». Landare aldetik ere berdina azzimarratzen du Urkiolak: «Hemen daude-

nak esaterako mediterraneoan ez daude eta han daudenak ez daude hemen. Esaterako, guk akazia daukagubaina mediterraneo aldean lamiak, almendroak... dauzkate». Lore ezberdintasunagatik, leku bakoitzeko erleak mizto ezberdina izan ohi du, eta gurera egokituta dagoen erlea, erle beltza da.

Zizurkilten laborategian genetikan pixka bat sartzen ari dira eta Erlezain Elkarteak erle beltza berreskuratzen nahian ari da dituzten laguntza apurrekin. Arantzazu eta Goizuetan aurkitu dituzte gutxien kutxatuta dauden erleak.

## Txapelketak

Urtero-urtero Zegaman Gipuzkoako finala egiten da eta Usurbilen aldiriz, Euskadiko Erle Eguna ospatzen dute. Zegamako, Elkartetik antolatzen dute Udalaren laguntzarekin eta Usurbilgoan, bertan dagoen elkarteak arduratzen dabaina Gipuzkoako Erlezain Elkartetik ere laguntzen diete. Zegaman finala egin ahal izateko, 8 eskualdetan lehiaketak egiten dituzte eta horietatik ateratzen diren lehen hiru sailkatuak Zegamara iristen dira eta bertan, Gipuzkoako eskualdeetako ezirik hoberenak lehiatzen dira. Gainera, egun bereziko azoketatik ere deitzen diete parte hartzeko: Ordizia, Bergara, Tolosa...

Txapelketetan, parte-hartzaile bakoitzari bi pote ekarrarazten dizkiote. Eztia baloratzen parametro batzuk hartzen dituzte kon-

tuan: «Lehenengo hezetasuna, eztiak ondo egoteko 18 gradutik behera egon behar du, Txilarraren eztiak kenduta, hau 20ra iritsi daiteke. Gainerakoan, ezti hori mindu eta galdu egiten da. Gero egoerari begiratzen zaio, merkatuan egon behar duen bezala aurkeztu behar da, hau da, ez dadila eskua erantsi ontzian. Eta eztiak berak ere ez ditza erle hankak eta eduki, garbi

**Hezetasuna, egoera, usaimena eta dastamena baloratzen dituzte ezti on bat aukeratzeko**

**Erleak naturan egiten duena ez da eztiak baizik eta polinizazioa, eta hori da garrantzitsua**

egon behar du. Gero, dastamena eta usaimena begiratzen dira». Hiru ezti mota bereizten dituzte: argia, iluna eta milareena eta parte-hartzea ere urtetik urtera gorantz doala azzimarratu dute. Bestalde, urtero 80 urte betetzen dituzten erlezainak omentzeko ohitura dute.

## Erlearen garrantziaz jabetzea

Ingurugiroa gehiago zaintzearen beharra nabarmentzen dute: «Erleak ez da bakarrik eztiarekin bizi, ezti eta polena behar ditu eta azken urte hauetan polenaren bitaminaren portzentaia jaisten ari da. Orduan, erleak jaten du baina ez

behar beste proteinekin eta transgenikoetan sartzen bada, bukatu da, hor jada ez dago kalitatearik eta ia polenik gabe geratzen dira», dio elkarteak lehendakariak. Bestetik, landareei botatzeko jendeak edozein produktu erabiltzen dituela azzimarratzen du eta ez dutela erreparatzen, horietako produktu batzuk zein kalte egin diezaiokkeen erleari; «erleak hiltzen badu, beste asko ere hiltzen dira. Oreak galitzen ari gara. Kate bat da eta dena puskatzen ari gara. Gizakiak eskua sartzen duen leku guztian puskatu egiten du».

«Mundu honetara jendea animatuko nuke eta horrela jende gehiago kontzientziatuko litzateke erleak benetan zer egiten duen naturan. Erleak naturan egiten duena ez da eztiak, ez da polena, ez da jalea real baizik eta polinizazioa eta hori da garrantzitsua. Eins-teinek esan moduan, erlerik ez balego 4-5 urtetan gizakiok desagertuko gineteke, jatekorik ez balkeen edukiko. Milioika urte daramatza erleak lurra eta ez dezagala oraindik ere gehiago puskatu», gaineratzen du.

Gasztebati mundu honetan sartu nahi izanez gero zergomendatuko liokeen galdetuta, ondorengoa dio Urkiolak: «Lehenik eta behin alergiarik ba ote duen edo ez jakin behar du; alergiarik ez badu, bazkide egin, materiala hartu eta erlauntza pare bat edo hirurekin hasi dadila. Ikastaroetan parte hartu eta gero berak ikusiko du nora jo edo noraino heldu nahi duen».

# «Erleekin lana ez dut etekina ateratzeagatik egin eta omenaldi hau egiteak ilusioa egin dit»

JUAN IGNAZIO MENDIZABAL | Erlezaina

**Tolosa** » Urteetan zehar erleekin egin duen lana dela eta, Zegaman ospatu zen XI. Ezti Txapelketan omendu egin zuten.

**E. MAIZ**

Juan Ignazio Mendizabal (1929, Tolosa) gaztetatik erleen artean ibili da. Hori dela eta, nahiz eta Ezti Txapelketa batean inoiz ez parte hartu, Zegaman ospatu zen XI. Ezti Txapelketan omenaldia jaso zuen beste hiru erlezainekin batera.

**Ezti Txapelketan omendu zituzten. Zein izan da zure ibilbidea?**

Tolosaldetik askotan deitu izan didate erle pertsiarian edo tximian sartu zaiela eta. Udaletxetik ere beti niri deitzen zidaten. Inork ez zuten joan nahi izaten eta nik ibili behar izaten nuen teiltatu edota alturretan suhiltzaile, Ertzain edo Guardia Zibilekin. Ez dakit 80 urte bete ditudalako izan ote den.

**Noiz hasi zinen erleekin lanean?**

Aitonak zituen erleak eta bera ibiltzen zen baina behin alturretan ibili ezinik-eta hasi zenean beti niri dei-

tzen zidan. Gogoz hartu nuen eta gustatu egin zitzaidan.

**Zaletasun moduan hartuko zenuen?**

Bai, niri gustatu egiten zitzaidan baina gutxi batzuekin nahikoa nuen ondo kasu ez egitekotan zeren beste lanak ere banituen. Hala ere, orain baino askoz gehiago ere eduki izan ditut.

**Lana ere izango du ezta?**

Ondo joateko hilean behin edo erreparatu egin behar zaio. Lanean nola ari diren begiratu behar zaie; panelak nola doazen, umeak, erregina zahartu egin daiteke eta erreginarik gabe galdu egiten dira eta hori guztia kontuan hartu behar da. Tximeletak eresartzen dira eta arrak sortuz gero segituan hondatzen ditu, hau aurkari handia du erleak, ezti guztia jaten dio eta hiltzera iristen dira.

**Nolako eztiak egiten duzu zuk?**

Gaur egun aurrerapen asko dago baina guk natural-naturala jasotzen dugu, erleak egiten duena bere horretan. Inguruan ahalik eta lore gehien izan dezatela saiatzen naiz. Lorea gertu izanda lan gehiago egiten dute eta etxe inguruan era guztietako landareak ditut.



Mendizabal omenaldian jaso zituen txapela eta garaikurrarekin. E. MAIZ

**Zenbat ziztada jaso dituzu?**

Ez, ihes egiten dutenean ez dute ziztadarik egiten. Lapurretara joaten zarenean edo bera estutzen baldin baduzu orduan larritzen dira eta ziztada egiten dute. Baina eztiak kentzera bazoaz ondo tapatuta joan behar duzu, orduan ez dute barkatzen.

**Gazteen aldetik ba al dago etorkizunikerle eta eztiaren inguruan?**

Ez, ez dakit zer etorkizun izango duen erlezaintzak. Semeak ere ez dauka gogo gehiegirik. Lagundu

egiten dit baina gero zer egingo duen ez dakit. Zegaman bertan ere, jende asko zen baina gazte gutxi ikusi nuen nik.

**Zer esango zenieke honetan hasi nahiko luketean gazteei?**

Animatzeko edota segitzeko esango nieke nik, baina gogoan norberak izan behar du eta gogorik ez bada gero alferrik da. Gauza oso polita da eta gainera hemen bertako ezti sanoak asko balio du. Nahi izanez gero mendian lekuren bat bilatuko lukete nik uste.

**Ilusioa egingo du honelako omenaldi bat jasotzeak, ezta?**

Bai horrela errekonozitzeak ilusioa egiten du. Giro politean joan zen eguna, lehenengo erlearen prozesua nola izaten den erakutsi zuten, gero ezti lehiaketa egin zen eta ondoren txapela eta garaikurra eman zizkiguten. Bazkari ederria eman ziguten eta emazteei ere lore sorta bana eman zieten. Borondatearekin eta gustura egindako lana izan da nirea eta ez dut inoiz etekina ateratzeagatik egin eta hori baloratzeak ilusioa egiten du.

**Pasadizoak ere izango dituzu kontatzeko.**

Bai, asko dira. Nafarroako etorbidean izan zen, ustez kaxan sartu nituen erle guztiak eta ustekabean denek ihes egin zidaten. Erreginak barruan egon behar du bestela erle guztiak ihes egiten dute erregina doan lekura eta erreginak ihes egiten badu, ez da giro izaten. Eta nonbait erregina kanpora atera zen eta beste guztiak atzetik. Eguraldi bikaina egiten zuen eta atera zen erle pilarekin itzala eta guzti egiten zuten kalean. Jendea harrituta geratu zen eta beste batzuk ikaratu ere egin ziren. Denak zuhaitz batean geratu ziren. Beste batean, orain bota dituzten pistinetatik deitu zidaten erleen bila joateko. Baina kontua da lorez betetako zuhaitzak zeudela bertan eta erle guztiak polenaren bila joaten zirela. Kasu horretan ezin ziren erleak bildu, esan nien soluzio bakarra zuhaitzak moztea zela.

# «Kasualitatez eguna pasatzera joan nintzen eta ez nuen espero lehen postua lortzea»

LUIS NAZABAL | Erlezaina

**Elduain** » Zegaman ospatu zen XI. Ezti Txapelketan lehen postua eskuratu zuen milalorre eztiaren sailean.

**E. MAIZ**

Luis Nazabal (Elduain, 1966) bere aita Simon Nazabalen ibilbidea jarraitzen ari da. Berarekin ikasi zuen eta oraindik ere aitarekin egiten du eztiak. Urtero aurkezten badira ere, aurten, XI. Ezti Txapelketan, milalorre eztiaren sailean Gipuzkoako eztiarik hoberearen saria eskuratu dute.

**Zorionak XI. Ezti Txapelketan lortutako lehen postuagatik. Nola joan da aurtengo txapelketa?**

Lehenengo Tolosa inguruko txapelketa egiten da eta bertan ateratzen diren lehenengo hirurak Zegamako txapelketara pasatzen dira. Guk Tolosan lehenengo postua lortu genuen. Baina Zegaman ez nuen espero. Berez eguna ez zertorkidatu ongi eta ez nuen asmorik joateko baina azkenean alabarekin egun pasa joan nintzen. Nire izena

entzutea ezusteko handia izan zen. Txapela, garaikurra eta alabari lore sorta bat eman zizkiguten. Nik baino sorpresa handiagoa aitak hartu zuen. Zegaman eta Usurbilen ere aurkezten gara baina Tolosakoak kenduta, lortzen dugun lehen postua izan da, zaila dago.

**Milalorreetan bakarrik hartzen duzue parte?**

Bai, guk eztiak abuztu-iraila tarte horretan kentzen diogu. Behin kentzen diogu eta hor ateratzen dena da. Bestela lehenengo akaziarrena, gero gaztainarena kentzen lan dexente egiten da. Kaxa asko ez dira baina azkenean lana badu eta premio edo errekonozimendu txiki bat jasotzea polita da eta poztasuna ematen du.

**Ilusioa egingo du honelako sariak jasotzeak, ezta?**

Handia. Urte guztian azkenean lan dexente egiten da. Kaxa asko ez dira baina azkenean lana badu eta premio edo errekonozimendu txiki bat jasotzea polita da eta poztasuna ematen du.

**Noiz hasi zinen erleekin lanean?**

Auzoan bazen aitona bat erleak zituen eta aita harekin-edo hasi zen, ez naiz oroitzen. Gero aitak



Urnietan bizi den Luis Nazabal elduaindar erlezaina. E. MAIZ

beti laguntza behar izaten zuen kaxak alde batera edo bestera mugitzeak eta jakinmina piztu zitzaidan. Aita Fraisoron antolatzen zituzten ikastaroetara joaten zen eta geroago ni hasi nintzen, liburuak irakurri eta orain Internet bidez informatzen naiz. Hamabost bat urte izango dira ni hasi nintzela eta oraindik ere biok aritzen gara.

**Eta noiztik hartzen duzu parte horrelako txapelketetan?**

Lehenengo aita hasi zen Tolosako-ra joaten eta nahiko ongi molda-

tzen zen lehen eta bigarren postuak lortu zituen. Azken urteotan Ibarran egin da eta bertatik Zegamara joan behar. Eta gero berak ez zuela gogo handirik eta ni joango nintzela eta horrela jarraitzen dugu.

**Zenbat ezti ateratzen duzue urtean?**

8-10 kaxa ditugu eta erlauntza itxurazko batetik eta betiere eguraldiaren arabera 25-30 kilo ezti atera behar dira baina gu ez gara egunero gainean egoten. Etxerako

egiten dugu gehiena. Zaletasun bezala daukagu eta gustuz egiten dugun lana da.

**Zein da ezti on baten sekretua?**

Ez dakit sekretua den baina kaxa guztia garbia izatea izango litzateke. Eta hortik aurrera erleak egiten du eztiak. Eguraldiaren arabera akazi edo gaztaina gehiago edo gutxiago izango du. Guk abuztu-irailan biltzen dugu eta erleak berak egiten du nahasketa, eta guk behin biltzen dugu, hau da, lore anitza.

**Zer behar du ezti on batek?**

Hezetasuna 18tik beherakoa izan behar du. Ongi iragazia, argizagirik gabekoa, garbia eta txukuna. Bestalde, botikarik gabekoa. Botika jarri badiozu ezin duzu eztiarik bildu botika kendu arte.

**Zer ematen dizu erleak?**

Erleak ez dio inori ezer lapurtzen eta dena berak egiten du. Langile amorratuak dira benetan eta naturaren alde izugarriko lana egiten dute. Garrantzitsua da ingurugiroa mantentzen egiten duten lana.

**Hurrengo urtean berri ere Txapelketan aurkeztuko al zara?**

Dudarik gabe joango gara eta ilusio handiarekin gainera baina esperantza aurten bezalakoa izango da. Jende on eta jakintsu asko egoten da eta egun pasa besterik ez bada ere joango gara. Eta hemendik, eskerrak eman nahiko nizkieke Erlezain Elkarteakoei dena beraiek antolatzen dutelako eta egiten duten lana handia delako eta beraiei esker ere asko ikasi dugulako.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@irragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta/Leitza:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra/Leitza:** 687 410 034. ibaralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza/Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Festak

■ **Anoeta.** Korputz jaiak: 10:30ean Umore Ona jubilatuta abesbatza elizan; 11:00etan Gorritiren zezen-foak eta poneyak; 11:30ean paila finalak; 12:00etan buruhandiak; 13:00etan Javier Sarasari omenaldia elizan; 18:00etan herri kirolak Aroztxean; ondoren, erromeria Agirre anaiak taldearekin.

■ **Berrobi.** Eskola Txikien Eguna: 10:30ean ongiatorria, jokoak eta karaokea, puzgarriak, erakusketa, zaldi paseoak, tailako erakusketa eta tailerrak; 13:30ean lekuko al-daketa Altzokoei; 14:00etan bazkaria frontoian; Pirritx eta Porrotx pailazoak; 18:00etan erromeria.

■ **Ibarra.** Gazte Festak: 12:00etan kalejira herriko trikitilarietara; 14:30ean gazte bazkaria Xepian; bazkalondoa kalejira; 18:00etan Kea emanaldia plazan (Gazteok dantzara!); 19:00etan Loatzo musika eskolaren emanaldia plazan; 21:00etan Ze esate! taldearen kontzertua Gazte txean.

■ **Tolosa.** Laskorain Ikastolaren eguna: 10:30ean bizikleta marxta herrian zehar, 11:00etan jolasak eta hamaiketakoak, 12:00etan HH-koen jaialdia, 12:30ean abesbatza, 13:00etan antzerkia, 14:00etan bazkaria, 15:30ean jolasak, 16:00etan Hipo eta Tornax pailazoak eta Unsain anaiak.

### Mendia

■ **Bedaio.** Bedaio III. Mendi Marxta oinezkoentzat (neurtua) eta BTT Marxta 07:30ean frontoetik abiatuta (txirrindulariak 08:30ean). Izen-ematea irteeran, 10 euro.

### Zinema

■ **Tolosa.** Gaur, Leidor aretoa: 17:00etan, *Vamos a la luna* haur-erentzako filma, 19:30ean eta 22:00etan *Angeles y demonios*. Bihar (ikuslearen eguna) *Seraphine* filma, 20:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.  
**Bihar**  
■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz zuzoa, 9. 943 67 51 18.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunik.

# II. Sagardo Egunaren zain

**Leitza** » Lehen Sagardo Eguna izan da aurtengoa; erantzuna ikusita baliteke datorren urtean ere berriro antolatzea.

### ERREDAKZIOA

Gipuzkoako eta Nafarroako 16 sagardo egileren sagardoa dastatzeko aukera egon zen atzo arratsaldean Leitzaan.

Herriko Aurrera Kirol Elkarteak eta ALKE Kultur Elkarteak lehen aldiz antolatu dute aurtengoa sagardoari eskainitako jai, baina erantzun ona ikusita baliteke datorren urtean ere festa «xume» hau berriz ere egitea.

Ekoi zle bakoitzak 84 botila inguru eraman zituen Karrapera, baina sagardoa dastatzeaz gain pintxoak jateko aukera ere izan zen. Bertsolariak eta trikitilariak ere izan ziren jai alaituz.

### Zortzi sagardo mota probatzeko aukera, gutxienez

I. Sagardo Egunerako gerturatutako pertsona bakoitzak 3 euroren truke zortzi sagardo mota probatzeko aukera izan zuten. Aipatu kopurua ordainduta edalontzia eta zortzi tikit jaso zituen bakoitzak.

Giro ona nagusitu zen herrian Sagardo Eguna eskertu, eta horregatik antolatzaileek datorren urtean berriz egin ala ez erabaki behariko dute orain. Hori bai, egin ez gero «aldaketa batzuk» ere egiteko aukera ere aurreikusten dute.

Leitzara gerturatutako guztiak sagardoa dastatzeaz gain Karrapera aurpegi berria ezagutzeko aukera ere izan zuten. Izan ere, Udaletxean berritze lanak ere egin dituzte azken hilabeteetan.



Guztira 16 ekoizleren sagardoa dastatzeko aukera izan zen atzo; bakoitzak 84 botila inguru eraman zituen. R. CALVO



Trikitilariak eta bertsolariak ere izan ziren Leitzaiko I. Sagardo Eguneko giroa alaitzeko. R. CALVO

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak